



# Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak

## Tokiko Bilduma: herri bilketa eta ikus-entzunezko ondarea

(2/2)

### Tratamendu teknikoa

2017ko maiatzak 12

Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak dokumentazio alorraren inguruko eta, bereziki, Euskal Herriko dokumentazio gaien inguruko gogoetak bultzatu eta ezagutarazteko helburuarekin sortu ziren. Laugarren edizio hau herrietako ezagutza bildu eta geroratzeko egitasmoek sortzen duten ikus-entzunezko ondarearen inguruan antolatu da, zehazki bideo grabazioen eta euskarri digitalen inguruko esperientziak partekatzeko.

#### Hitz egindakoaren laburpena:

#### Ikus-entzunezkoen tratamendu teknikoari buruz

- **Ekitaldien grabazioak nola egin: oinarrizko oharrak**  
Eneritz Urkola. Bertsoa.eus
- **Elkarrizketen grabazioak nola egin: oinarrizko oharrak**  
Idoia Etxeberria. Ahotsak.eus
- **Bideo fitxategien oinarrizko edizioa eta internet publikazioa**  
Haizea Odria. Ahotsak.eus
- **Ikus-entzunezko ondarearen tratamendu dokumentala**  
Nere Erkiaga. Xenpelar Dokumentazio Zentroa

# *Ekitaldien grabazioak nola egin: oinarrizko oharrak*

[Bertsoa.eus](http://Bertsoa.eus)

Kamera bakarrarekin ekitaldi baten grabazioa egiteko oinarrizko oharrak eman ziren, bertso-saioen grabazioak adibide hartuta. **[Ideien laburpena da hau]**

- Ekitaldi bat grabatzeko beharrezko materiala:
  - Bideo kamera: gaur egun merkatuan dagoen ia edozein kamera eta tripodek balio dezakete ekitaldi bat grabatzeko, beti ere audio-kable bidez grabatzeko aukera izanez gero. Aurrekontuaren eta bilatzen den kalitatearen arabera daude.
  - Tripodea: garrantzitsua da tripodea erabiltzea, irudiak egonkortasuna izateko.
  - Audio-kablea: soinua grabatzeko modu egokiena mahai-soinu bateko lineako audioa grabatzea da, audio-kablearen bidez. Aukera dagoen guztietan baliatu behar da.
  - Belarrietako kaskoak: kameran grabatzen ari garen soinua entzun eta grabazioko bolumena egokitu ahal izateko.
- Kontuan hartu beharreko gauzak:
  - Oholtzaren osotasuna: ekitaldia egingo den oholtza osoa ikusi behar da kamera dagoen lekutik. Oholtzaren parean erdi-erdian ez jartzea gomendatzen da, beti ezker-eskuin, ekitaldiaren ezaugarriak zainduaz.
  - Planoa garbi: publikoak edo beste edozein elementu kameraren planoan ez duela estaliko bermatu behar da.
  - Parte hartzaileak aurrera begira: ekitaldian parte hartuko dutenek kamerari bizkarrik ez ematea saiatu behar da.
  - Kokapenerako beste gai batzuk:
    - Audio-linea: lineako audioa erabili behar bada, soinu-mahaiaren kokapenak baldintza lezake kameraren kokapena.
    - Giroko soinua grabatu behar bada (ez gomendagarria), kameraren ondoan isiltasuna bermatu behar da.
- Enkoadrea eta zoomaren ez-erabilera:
  - Behin planoan enkoadratuta, zooma gehiegi ez erabiltzea aholkatzen da.
  - Enkoadrea: zabalegia gabe, estuegia ez. Ekitaldiaren ezaugarrien arabera aldatuko da enkoadrea ere.
  - Airean (hutsuneak): kontuz, informaziorik ematen ez duten plano zatiekin. Ahal denean, airea saihestu.
- Audioaren grabazioa:

Ekitaldian zehar dena edo ia gehiena mikrofonotik esango dela bermatzen bada, saiatu lineako audioa grabatzen.

  - Lineako audioa: soinu-ekipotik kamerara lineako audio-klabe baten bidez bideratuko da soinua eta kameran soinu hori grabatu. Kontutan izan oholtzan norbaitek mikrofonotik kanpo hitz egitez gero, grabazioan galdu egingo dela.
  - Giroko soinua: soinu-ekiporik ez baldin badago, giroko soinua grabatuko da kamerak berak duen mikrofono baliatuz. Kamera inguruan dauden soinu guztiak grabatuko ditu. Kamera ingurua isilik egotea zaindu behar da.
- Bideo grabazioen jasotzea/bidalketa internet bidez:

Internet bidez bidaltzeko tamaina handia dute bideo grabazioek. Oraindik errazagoa egiten da grabazioak esku esku garraiatzea: bideo-kameretan edo disko gogorretan. Sareko tresna batzuk hauek dira:

  - Mega (<https://mega.nz/>)
  - Infnit (<https://infnit.io/>)
  - Resilio Sync (<https://www.resilio.com/individuals/>)

# *Elkarrizketen grabazioak nola egin: oinarrizko oharrak*

[Ahotsak.eus](http://ahotsak.eus)

Kamera bakarrarekin egindako elkarrizketak grabatzeko oinarrizko oharrak eman ziren.

**[Ideien laburpena da hau]** Azalpenak emateko erabilitako fitxategia [hemen](#)

- Oinarrizko materiala:
  - Bideokamera, mikrofono sarbidea duena; mikrofonoa; tripodea eta fokoa.
- Kameraren baliabideak:
  - Bateriak : beti kargatuta daudela ziurtatu
  - Elikagailua: bateriak kargatzeko edo bateriarik gabe grabatzeko
  - Softwarea: irudiak ordenagailura bolkatzeko
- Mikrofonoak:
  - Paparrekoa: erabiliena, elkarrizketatuaren ahotsa bakarrik jasotzeko
    - Mikroa eta pintzak
    - Petaka eta pilak (beti kargatuta daudela ziurtatu)
    - Kablea: kameratik petakara konexioa
  - Mahai gainekoa: taldeko grabazioak egiteko

\*Bideokamerak ere badu bere mikroa
- Tripodea:
  - Zapata: kamara tripodeari lotzeko. Tripode bakoitzak berea du.
  - Tripodea bera: Altuera egokitzeko, hiztunaren begien parean jarri.
  - Nibela: irudia orekatuta grabatzeko. Tripode denek ez dute, komenigarria da.
- Barruan:
  - Ahalik eta argi gehien piztuta eta leku argitsuenean
  - Fokoa erabili
  - Kontuz leihoekin: kontra-argiak sortzen ditu
- Kanpoan:
  - Argia kontrolatzea zailagoa da.
  - Kontuz eguzkiarekin: lainotutako egunak hobeak dira.
  - Itzala baldin badago, itzaletan grabatu.
- Planoak:
  - Aire utzi: buru gainean ez askorik, eta hiztunak begiratzen duen norabidean, aire gehiago.
  - Elkarrizketatzailea kameraren aldamenean, elkarrizketatik hari begiratzean kamerari begira bezala jasotzeko.
- Grabazioa:
  - Hasi aurretik zirtatu: argiztapena eta enkoadrea; bateria eta kameraren memoria; mikroa piztuta; aurikularretatik ondo entzuten dela.
  - Hiztuna hitz egiten hasi baino lehenago hasi grabatzen.
  - Grabatzeran zaindu audioa eta enkuadrea
  - Zer eta nola galdetzeko jarraibide orokorrak: <http://ahotsak.eus/info/parte-hartu/>

# *Bideo fitxategien oinarrizko edizioa eta internet publikazioa*

[Ahotsak.eus](http://Ahotsak.eus)

Behin grabazioa eginda, bideo fitxategiaren edizioa pausoz pauso egin eta interneten publikatzeko azalpenak eman ziren.

[[Ideien laburpena da hau](#)] [Azalpenak emateko erabilitako fitxategia hemen](#)

1. Grabazio deskarga kameratik ordenagailura:
  - USB kablearekin egiten da oso azkar. Eta ez da behar bestelako programarik behar (lehen bideokamera bakoitzak bere softwarea behar zuen)
  - Karpeta bakarrean jaso grabazio fitxategi guztiak.
  - Izendapen sistema adostu. Fitxategi eta karpetak identifikatzeko erabiliko da:
    - Grabazioaren deskribapena egitean, datu-basean jasota utzi dagokion izendapena.
    - Fitxategiak edozeini bidaltzean edo bueltan etortzean ere, zein grabaziotakoa den identifikatzeko balioko du.
2. Grabazioa aztertu, zatika katalogatu eta publikatu behar diren zatiak identifikatu:
  - Informazio pribatua ez da publiko egingo
  - Teknikoki arazoak dituzten zatiak baztertu (soinua desagertu, telefonoak jo, ...)
  - Bideo luzeak jende gutxi ikusten ditu: zabalkunderako bideo txikiak, klipak, sortu, gaiaren arabera.
    - Bideo osoa aztertu eta denboraren arabera zati txikiak identifikatu: argitaratu behar direnak eta ez direnak; eta bakoitza katalogatuko da: gaiak jarri, transkribatu, ...
3. Bideo grabazioa editatu eta zati txikiagoetan ebakita jarri: Ediziorako programak
  - Programa profesionalak (erabiltzenerako ezagutza eskatzen dute):
    - [Adobe Premiere](#)
    - [Sony Vegas](#)
  - Programa libreak (erabiltzeko errazagoak dira, oinarrizko ediziorako nahikoa):
    - [Windows Movie Maker](#) : Orain deskargatu egin behar da, ez dator windows-akin.
    - [Imovie](#): Mac ordenagailuetan datorrena
    - [Avidemux](#): Itxura zaharkitua du baina ondo dabil
    - [Jahshaka](#)
    - [Fimora](#): Fama ona du. Ez da guztiz doakoa, bideo bakoitzaren bukaeran bere logoa jartzen du ez baduzu ordaintzen. Bi modu ditu, erraza eta aurreratua.
4. Movie Maker erabilia adibidea (baina beste edozein programarekin ere pausu berdinak)
  1. Artxiboak programara ekarri: Proiektua sortu
  2. Editatu: mozketak egin, transizioak gehitu, testuak, musika...
  3. Proiektu osoa elkartu eta artxibo bakarrean elkartu eta gorde.

## 5. Interneten argitaratzeko programak:

Bideo fitxategien segurtasun kopiak eta fitxategi formatuen konbertsio guztiak automatikoki egiten dituzte, bai dispositibo ezberdinetan ikusi ahal izateko; baita etorkizunean sortu diren teknologia berrietara egokitzeko ere.

### ○ [Youtube](#)

- Edozeinentzat
- Bideoak igotzeko mugarik ez
- Kalitate estandarra
- ➔ Gmail kontu bat behar da. Googlen zerbitzu bat da. Youtube kontu bat sortu email horren bidez.
- ➔ Kanal bat sortu, nahi den izenarekin.
- ➔ Bideoa igotzean
  - Pribatutasuna erabaki:
    - Publikoa: denek ikusi
    - Ikusgai: lotura bidalitako pertsonak bakarrik ikusi (kanalera sartuta ere ezin ikusi)
    - Pribatua. Guk bakarrik ikusi
  - Bideoa kargatu: denbora behar duenez, bideoaren deskribapen txiki bat jarri
- ➔ Bideoa sare sozialetan banatzeko aukera guztiak ematen ditu. Eta txertatu edo “enkapsulatu” aukerarekin, html kode bat eskaintzen du, gure webgunean edo blogean txertatu eta miniatura moduan ikusi ahal izateko.

### ○ [Vimeo](#)

- Profesionalagoa (artistek, kalitate handiko lanak,...)
- Muga 500MB astean (gehiago igotzeko, ordaindu egin behar da.
- Kalitate oso ona.

# *Ikus-entzunezko ondarearen tratamendu dokumentala*

[Xenpelar Dokumentazio Zentroa](#)

Egindako bideo grabazioak fitxategi digitaletan jasotakoan egin beharreko kokapen eta tratamenduari buruzko oinarrizko azalpenak eman ziren.

**[Ideien laburpena da hau]**

- Bideo grabazio digitalak
  - o Memoria asko behar dute: gero kalitatea hobea dutenez, gero eta pisu handiagoa dute bideo fitxategiek.
  - o Formatu ezberdinetan jaso daitezke (mp4, avi, mpeg, mov, mxf, wmv, mkv, ...)
  - o Grabazio berak hainbat fitxategi ezberdin izan ditzake: brutoak (grabatu den bezala) eta editatuak (formatu handian eta publikatzeko formatu txikiak)
  
- Non gorde:

Bideo fitxategiek memoria handia hartzen dute eta bideo bilduma handia gorde behar denean arazo bihurtuko da.

  - o Ideala. Zerbitzari egoki batean grabazio guztiak jaso: Aldizkako segurtasun kopien sistema antolatuta, eta kopia bat beti eraikinetik kanpo gordeko da.
  - o Bigarren egoera. Zerbitzari txikiegia da eta tarteka edukia hustu behar da: Zerbitzarian karpetak sortuko dira, konprimatu gabeko segurtasun zinta baten tamainako edukia gordetzeko (“edukitzailea” deitzen dira gurean). Edukitzailea betetakoan, edukia zerbitzaritik aterako da segurtasun zinta bi eta disko gogor baten kopiatuta, euskarri ezberdinetan eskaini ahal izateko. Segurtasun zinta bat eraikinetik kanpo gordeko da.
  - o Hirugarren egoera. Zerbitzaririk ez eta disko gogorretan: Ez da oso egonkorra, baina sarri emango den egoera izan daiteke. Edukia disko gogor batean gorde eta *Robocopy* bezalako programazio sinpleekin segurtasun kopia bat mantendu bigarren disko gogorrean. Betetakoan, segurtasun zintetan egin bi kopia (segurtasun zinten edukierak jarriko du disko gogorretako edukari muga).
  
- Formatuen aniztasuna eta formatu aldaketa:
  - o Ohiko formatuak zeintzuk diren erabaki behar da, eta hori erabakitakoan, beste formatu guztiak horietara bihurtu.
  - o Formatu guztiak ikusteko programa egokia da hau: VLC Media player
  - o Formatu aldaketak egiteko programa egokiak dira ondorengoak:
    - [Formatfactory](#)
    - [Mediacoder](#)
    - [Freemaker](#)
    - [Total video converter](#)
  
- Fitxategien izendapena eta kokapena:
  - o Izendapen bateratua adostu, grabazio-fitxategien identifikazio osoa egin ahal izateko:
    - `xdz_gra_dataherria`
    - `xdz_gra_edukitzaile-izena_zenbaki-jarraia`
  - o Katalogazioan, kokapen digitala adierazi:

Fitxategiaren izenarekin batera, edukitzailearen izendapena ere jaso behar da, nahiz eta oraindik edukiak zerbitzarian gorde (etorkizunean zerbitzaritik edukiak atera behar izanez gero.